



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN

**COVID-19
Suspertze
ekonomiko
eta sozialerako
plana**

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

Ekonomia Sustapena,
Turismoa eta Landa
Ingurunea

2020 Apirila
-

www.gipuzkoa.eus



IKUSPEGIA

COVID-19ak sortutako osasun larrialdia eta horrek lurraldeko pertsonengan eta ekonomian dituen eragin handiak direla eta, Ekonomia Sustapeneko Departamentuaren estrategiak uztartu egin behar ditu Gipuzkoako enpresen **epe laburreko beharrak eta egoera sozioekonomiko lehiakorrago baten etorkizuneko garapena**. Kudeaketa dualaren printzipioak aplikatzeko unea da: **“oraina kudeatu, etorkizuna prestatuz”**.

PRINTZPIOAK

Aldundiak **kalitatezko enplegua** sortu eta finkatu nahi du lurraldean, enpresa proiektu **lehiakor, eraldatzaile, jasangarri** –jasangarritasun hirukoitza: ekonomikoa, soziala eta ingurumenaren arlokoa– **eta humanoen** bitartez, Gipuzkoa Europako ezberdintasun maila txikienetakoa duen pertsona komunitate bihurtzen lagunduko dutenen bidez. **Gipuzkoako ongizatea eta lurraldearekiko konpromisoa**.



- Enpleguaren kalitatea gakoa da enpresa humanoen eta pertsona arduratsuen fokuari barruan, **erantzukidetasuna** eta **elkarlana** oinarri hartuta; are gehiago egungoa bezalako une kritikoetan.
- Gure enpresa proiektuak etorkizunerako prestatu behar ditugu, garatu egin behar ditugu, eta **personak eta gaitu behar ditugu** proiektu lehiakor jasagarriak sortzeko: horrek bermatuko digu egungo eta etorkizuneko ongizatea.
- Balia dezagun funtsezko eskumenetatik balio erantsiaren inguruan pentsatzeko, eta egin dezagun lan egungo egoera hau gainditzeko.


Konpromisoa eta lana:



ELKARLANEAN



JARDUKETA ARDATZAK:



ZER

NOLA

1. Etorkizuneko ikuspegia

Kalitatezko enplegua sortzea eta mantentzea, enpresa proiektu lehiakor, jasangarri eta humanoen bitartez, Gipuzkoa Europako ezberdintasun maila txikienetakoa duen pertsona komunitate bihurtzen lagunduko dutenen bidez.

2. Fokua lehentasunezko bi helburutan

Enpresa humanoak eta pertsona arduratsuak

- Kalitatezko enplegua.
- Partaidetza eta erantzunkidetasuna.
- Gaitasunen garapena.

Enpresa ekintzaileak, aurreratuak eta irekiak

- Ekintzailtza sustatzeko testuinguruak.
- Enpresa ekintzaileak.
- Enpresa teknologikoak, berritzaileak eta nazioartekotak.

3. Espezializazio ekonomiko adimentsua, eta ekonomia berrien aldeko apustua

- Mugikortasun elektrikoa apustu handi gisa, lurraldeko estrategia global batekin.
- Beste sektore estrategiko batzuk: zibersegurtasuna, gastronomia, silver economy, ekonomia zirkularra, ekonomia sortzailea.

4. Departamentu hurbila, inspiratzailea eta irekia

- Enpresarekiko gertutasuna.
- Erakunde irekia eta inspiratzailea.
- Hausnarketa eta berrikuntza iraunkorreko foroak.
- Eraginkortasuna baliabideen erabileran.

5. Elkarlana eta sare lana

- Aldundiaren koordinazioa.
- Koordinazioa eta osagarritasuna Eusko Jaurlaritzarekin.
- Elkarlana tokiko eragileekin.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea.
- Aliatuen sarea.

6. Tresnak uztartzea eta ebaluazioa

- Programak.
- Fiskalitatea.
- Finantzazioa.
- Zerbitzuak eta azpiegiturak.
- Ezagutza.



KALITATEZKO ENPLEGUA SORTZEA ETA FINKATZEA LURRALDEAN



4.800.000 €



- Arreta berrezia jartzea pertsona zaugarrienengan: **Elkar-Ekin**.



- **Talentu zientifikoa** erakartzea eta hari eustea (*Fellows*).



- Enplegua erregulatzeko espedienteek ukitutako pertsonen arreta.



- Ikasten duten antolakundeak eta pertsonak (bizi osoko ikasketa).



- **Lan inguru** berriak sustatzea: malgutasuna, uztartzea, telelana eta abar.



- Ikasketa digitaleko programak definitzea.



- Talentuaren, antolakuntzaren eta teknologiaren arteko oreka egokia garatzea, gaitasun pertsonalak, profesionalak eta sozialak hobetuz.



BALIABIDE EKONOMIKOAK BIDERATZEA ENPRESEI LAGUNTZERA



2.600.000 €



- Enpresei, bereziki txikiei, laguntza emateko mekanismoak ezartzea.



- Likidezia hobetzeko jarduketak mantentzea.



- Enpresak berregituratzeko prozesuetan lagun egitea, analisi estrategikoa eta kudeaketakoa txertatzea lagunduz.



- Krisiak gogorren jo dituen sektoreetako enpresa txikientzako, salmenten zati handi bat galdu dutenentzako, finantzazio ildoak.



ETORKIZUNeko ENPRESA PROIEKTUAK FINKATZEN LAGUNTZEA

 **14.000.000 €**



I+G+B

- I+G+Bari laguntzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen bidez, RIS3 estrategiarekin bat datozen jardueren bitartez.
- Enpresari teknologia eskuratzeko/hura sortzeko **berrikuntza mekanismoak** garatzea erraztea:
 - Abonu teknologikoak.
 - Telelan segurua sustatzea.



EKINTZAIETZA

- Jarduera ekintzailea eta babes ekosistema babesten jarraitzea.
- Jarduera ekonomiko berria sustatzea barne ekintzailetzaren bidez.



ETORKIZUNeko ENPRESA PROIEKTUAK FINKATZEN LAGUNTZEA



LEHIAKORTASUNA

- Balio sozial partekatura bideratzea.
- Bi eskuko kudeaketa ereduak bultzatzea.
- Pertsonen enpresetan **parte-hartzeko** politikak gidatzea. Jarraikortasuna eta errotzea. Gipuzkoa eredu.
- Gure enpresen **nazioarteko presentzia lehiakorra** finkatzea.
- **Enpresen jarduerarekin jarraitzen** laguntzeko ildoak indartzea (belaunaldi erreleboa, errotzea, ekonomia zirkularra eta abar).



GIPUZKOAKO SEKTORE ESTRATEGIKOAK FINKATZEAN SAKONTZEA



2.100.000 €



- Enpresen arteko elkarlana, negozio berriak eta negozio eredu berriak bilatzea sustatzea.



- Mugikortasun elektrikoari lotutako sektoreak indartzea.



- Industria 4.0-ko produktuak garatzeko programa. Digitalizazioa, robotizazioa.



- Zahartze osasungarriari lotutako sektoreei laguntzea.



- Jarduera ekonomikoan oinarritzko hornidura batzuk bermatzeko dinamika berriak diseinatzea.



TOKIKO KONTSUMOA SUSTATZEKO MEKANISMOAK EZARTZEA



3.000.000 €



- Akordioak ezartzea elkarteen eta udalekin ekimenak abian jartzeko.



- Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreei **laguntzak** eskaintzea:
 - Lokalak eta lan egiteko moduak egokitzeko azterketa.
 - Arretako eta osasuneko protokoloak ezartzea.
 - **Negozio eta merkaturatze eredu berriei laguntzea.**



LURRALDEKO ENPRESA GARAPENAREN EKOSISTEMAREN ZEREGINA INDARTZEA



1.500.000 €



- Gipuzkoako lehiakortasunaren behatokia.



- ETEak eta autonomoak babesteko plataformaren garapena.



- Enpresa proiektuaren berraktibaziorako azterketaren babesa.



- Biozientziak Fundazioaren batera, COVID-19ari lotutako proiektuen azeleraziorako prozesua sustatu.



SUSPERTZE EKONOMIKO ETA SOZIALERAKO PLANAREN AURREKONTU-LABURPENA

	KALITATEZKO ENPLEGUA SORTZEA ETA FINKATZEA LURRALDEAN	4.800.000 €
	BALIABIDE EKONOMIKOAK BIDERATZEA ENPRESEI LAGUNTZERA	2.600.000 €
	ETORKIZUNeko ENPRESA PROIEKTUAK FINKATZEN LAGUNTZEA	14.000.000 €
	GIPUZKOAKO SEKTORE ESTRATEGIKOAK FINKATZEAN SAKONTZEA	2.100.000 €
	TOKIKO KONTSUMOA SUSTATZEKO MEKANISMOAK EZARTZEA	3.000.000 €
	LURRALDEKO ENPRESA GARAPENAREN EKOSISTEMAREN ZEREGINA INDARTZEA	1.500.000 €

GUZTIRA



28.000.000 €

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN**
Es futuro

**Elkarlanean gara indartsu. Aurrera
egingo dugu.**

www.gipuzkoa.eus